

# BUA

Barrundiako Udal Aldizkaria  
2025ko maiatza / 40. zenbakia



## ■ GIZARTEA / SOCIEDAD

### La Benta

#### Venta del Patio

Gero eta gertuago dago “La Benta” martxan jartzea

La puesta en marcha de “La Benta” está cada vez más cerca

Testua | Izaro Agirre Poveda

## ■ GIZARTEA / SOCIEDAD

### Barrundiako Eskola

escuela de Barrundia  
Barrundiako Eskola Txikiko seigarren mailako ikasleekin hitz egin dugu

Hablamos con alumnos de sexto de la Escuela Txikia de Barrundia

Testua | Izaro Agirre Poveda

## ■ HERRIZ-HERRI

### Marieta-Larrintzar

“Gauzak egiteko beste modu bat. Energia-komunitate berria”  
“Otra forma de hacer las cosas. Nueva comunidad energética”

Testua | Concejo de Marieta-Larrintzar

# BUA

BARRUNDIAKO UDAL ALDIZKARIA  
2025ko maiatza / 40. zenbakia

Lege Gordailu zenbakia  
VI-211/2012

Helbidea  
Barrundiako udala  
Boilar, 12, 01206 Ozaeta,  
Araba

Telefona  
945 317006

Emaila  
idazkaria@barrundia.eus

Argitalpena  
Barrundiako Udala

Diseinua  
TARTEKA MEDIA Koop. Elkartea  
Karlos Perez de Muniaín Cagigao  
Izaro Agirre Poveda

Erredakzioa  
TARTEKA MEDIA Koop. Elkartea  
Izaro Agirre Poveda

Itzulpena  
TARTEKA MEDIA Koop. Elkartea  
Izaro Agirre Poveda

Kolaboratzaileak

Jon Laskibar Medina  
Araba Bizir elkartea  
Joseba Legarda  
Txus Brizuela Aguayo  
Leire Ruiz de Eginó  
Eskola Txikia

Imprimaketa  
Tarteka Media Koop.  
Kale Nagusia 29, Agurain.  
Telf.: 945561067  
Emaila: info@tartekamedia.eus

# AURKIBIDEA ÍNDICE

- 03. Gizartea | Sociedad**  
Barrundiako Emakumeen Topaketa  
Encuentro de Mujeres en Barrundia  
Testua | Udaletxea
  - 04. Elkarrizketa | Entrevista**  
Gero eta gertuago dago "La Benta" martxan jartzea  
La puesta en marcha de "La Benta" está cada vez más cerca  
Testua | Udaletxea
  - 06. Barrundia | Herriz herri**  
Marieta-Larrintzarreko, Komunitate Energetiko berria  
Marieta-Larrintzar, nueva Comunidad Energética  
Testua | Marieta-Larrintzar kontzejua
  - 10. Gizartea | Sociedad**  
Lautada babestu dezagun: Makroproiekturik ez!  
Protejamos la llanura: ¡Ningún macroproyecto!  
Testua | Araba Bizirik
  - 14. Elkarrizketa | Entrevista**  
Barrundiako Eskola Txikiko seigarren mailako ikasleekin hitz egin dugu  
Hablamos con alumnos de sexto de la Escuela Txikia de Barrundia  
Testua | Udaletxea
  - 16. Gizartea | Sociedad**  
IRONKIDS, Haur eta gazteak bizimodu osasungarri eta aktiboa egitera  
bultzatzen dituen programa  
IRONKIDS, Programa que impulsa a niños y jóvenes a llevar una vida  
saludable y activa  
Testua | Udaletxea
  - 17. Gizartea | Sociedad**  
Barrundiako udaleku irekiak  
Colonias de verano  
Testua | Udaletxea
  - 18. Gizartea | Sociedad**  
OXIGENO EUSKARARI  
Testua | Joseba Legarda
  - 20. Kontra azala | Portada**  
Eskola Txikien Topaketa  
Encuentro de Escuelas Txikiak  
Testua | Eskola Txikia
- Botika | Farmacia**  
Guardiako farmaziak Arabako lautadan datozen  
hiru hilabeteetan  
Farmacias de guardia en la llanada alavesa  
durante los próximos tres meses  
| Leire Ruiz de Eginó

Parte hartzeko edo  
ekarpenak egiteko:

aldizkaria@bua.eus  
602475274

Para participar o  
hacer aportaciones:

aldizkaria@bua.eus  
602475274

 www.barrundia.eus  945 317 006  idazkaria@barrundia.eus  Boilar, 12, 01206 Ozaeta, Araba.





# Emakumeen Topaketa Barrundian: Donostira eta Igeldo mendira Txangoa Maiatzaren 10ean

## Encuentro de Mujeres en Barrundia: Una Excursión a Donosti y Monte Igeldo el 10 de Mayo

**[CAST]** El próximo 10 de mayo, las mujeres de Barrundia tienen una cita especial para disfrutar juntas de una jornada llena de naturaleza, cultura y buena compañía. La salida está programada para las 09:30 desde la plaza del antiguo ayuntamiento en Ozaeta, y está abierta tanto a mujeres empadronadas en Barrundia como a cualquier otra mujer interesada en participar, sin necesidad de estar empadronada en el municipio.

El primer destino será la cooperativa IKO en Igeldo, donde a las 11:30 se realizará una visita guiada para conocer más sobre su funcionamiento y producción. La subida al monte Igeldo será en el funicular y tiene un coste de 4,75€. Después, a las 13:30, las participantes podrán disfrutar de una comida en el bar Txapela, ubicado en Igeldo, con un coste de 32 euros por persona. La comida será una excelente oportunidad para compartir, charlar y

fortalecer lazos entre las asistentes.

Por la tarde, se podrá disfrutar de un paseo por la Concha de San Sebastián y sus alrededores. La vuelta a Ozaeta está prevista para las 18:15, llegando con tiempo para descansar y compartir las experiencias del día.

Esta actividad es una oportunidad perfecta para desconectar, conocer nuevos lugares y fortalecer la amistad entre mujeres. **¡Ánimate a participar y disfruta de un día inolvidable!**



**[EUS]** Datorren maiatzaren 10ean, Barrundiako emakumeek hitzordu berezia izango dute naturaz, kulturaz eta konpainia onez betetako egun batez elkarrekin gozatzeko. Irteera 09:30etarako dago programatuta, Ozaetako udaletxe zaharreko plazatik, eta Barrundiako erroldan dauden emakumeei zein parte hartu nahi duten beste edozein emakumeri irekita dago, udalerrian erroldatuta egon beharrik gabe.

Lehenengo helmuga IKO kooperatiba izango da, Igeldon, eta 11:30ean bisita gidatu bat egingo da, bere funtzionamenduari eta ekoizpenari buruz gehiago jakiteko. Igeldoko igoera funikularrean izango da, eta 4,75 €-ko kostua izango du. Ondoren, 13:30ean, parte hartzaileek bazkaria izango dute Igeldoko Txapela tabernan, 32 euroko kostuarekin. Bazkaria aukera bikaina izango da bertaratutakoen artean partekatzeko, hitz egiteko eta harremanak sendotzeko.

Arratsaldean, Donostiako Kontxatik eta ingurutik paseatzeko aukera izango da. Ozaetara 18:15ean itzultzea aurreikusten da, atsedean hartzeko eta eguneko esperientziak partekatzeko denboraz iritsiz.

Jarduera hau aukera ezin hobea da deskonektatzeko, leku berriak ezagutzeko eta emakumeen arteko adiskidetasuna indartzeko. **Animatu parte hartzera eta gozatu egun ahaztezin batez!**



# La Benta

Testua | Izaro Agirre Poveda · Itzulpena | Izaro Agirre Poveda



Gero eta gertuago dago “La Benta” martxan jartzea, eta proiektua kudeatuko duen taldeak berak azaltzen dizkigu apustu horrek beraientzat ekarri dituen xehetasun eta zirrikitu guztiak.

Jon Laskibar Medinarekin bildu ginen “La Benta” proiektuari buruz zerbait gehiago jakiteko eta bere asmo eta itxaropenei buruz hitz egin dugu.

**Zerk bultzatu zintuzten espazio honen kudeaketarako zuen burua aurkeztera?**

Orain dela urte erdi izan nuen proiektuaren berri. Betidanik aritu izan naiz ostalaritza arloan lanean, baina inoiz ez dut halako proiektu bat nire kabuz hartzeko jausia eman, ez zait gehiegi interesatu izan. Proiektu onek ordea, kultura-arloko eta ostalaritza arloko bi ikuspegiak uztartzen dituzenez, interesa piztu zidan. Barrundiako udaletik proiektuaren kontzeptua eta garapena oso ondo jorratu dituztela iruditu zitzaidan hasieratik. Beraz, animatu egin nintzen.

**Nola definituko zenukete zuen lokalerako balio-proposamena? Zein da zuen ikuspegia epe ertain eta luzera?**

Edonori interesgarria iruditu dakiokela uste dut. Alde batetik, hutsik dagoen espazio hortan aktibitatea sortuko duelako, eta inguruko komunitatearentzat nolabaiteko gune sozial bat izango delako. Azken batean, ez dugu taberna edo pizzeria soil bat izan nahi, elkargune bat baizik. Horretarako, ekintzak antolatzea da asmoa. Jendea bertaratu eta elkartu dadin proposamen kultural interesgarriak eramatea.

Lehen sektorean dabilen jendearentzat erakuslehoio moduko bat izatea nahi dugu bestalde, jendeak tokiko ekoizleek eskaintzen dutena ezagutu dezan. Horrez gain, kanpoko jendea Barrundiara hurbiltzea eta udalerrira ezagutaraztea nahi genuke. La Benta-ren kokalekua bera, estrategikoa izan liteke zentzu horretan, autobidetik zein errepide zaharretik igarota ere, Barrundiara datorren orori ongi etorria ematen baitio. Barrundia denaren iragarpen moduko bat izan dadin nahi dugu, betiere, lehen sektorea erdigunean ipiniz.

“

**Baina esan bezala,  
Km-0ko ahalik eta  
produktu gehien  
erabiltzen ahaleginduko  
gara**

**Ekimenak lehen sektorea eta turismo jasangarria sustatzea du helburu. Nola integratuko zenituzkete ardatz horiek zuen negozio-ereduan?**

Modu ezberdinetan txertatuko ditugu ekoizleak proiektuan. Alde batetik, ekoizle horiei produktuak erosiko dizkiegu gureak egin ahal izateko: pizzak, errazioak... Zenbait produktu oso baliagarriak izango baitzaizkigu gure eskaintza gastronomikoa osatzeko: tomateak, gazta, barazkiak...

Bestalde, salmeta puntua daukagu. Denda txikia izango da, xumea. Takilla adimentsu refrigeratu batean jasoko dira webgunetik eskaturiko produktuak. Gainontzeko eskaintza bertako ekoizleena da, iraungitze data luzeko edo gabeko produktuak, alegia. Hurbiltasun-produktuak edo bidezko merkataritzakoak lehenetsiko ditugu.

Jasangarritasunari helduz, kontzeptu zeharo garrantzitsua da guretzat. Negozioaren dinamikan txertatzeaz gain, La Benta, zentzu horretan, eredu izatea nahi genuke. Gauzak zentzuz egin daitezkeela ikusarazi, jendearengan kontzientzia sortzeko. Horretarako, hondakin organikoaren %100a konpostera bideratzeko asmoa daukagu, narbaizako Ekaia Eko Compost enpresaren eskutik. Olio birziklatzeko bestalde, enpresa batekin harremanetan jarri gara dagoeneko. W

Beirari bigarren bitzta bat emateko proiektu bat dugu eskuartean; Kristalezko botilak makina baten bidez edalontzi bilakatzeko. La Bentaren logotipoa txertatu eta lokalean erabiltzeaz gain, salgai jartzearen aukera baloratzen ari gara. Hala ere, epe luzerako plana da, beira kantitate jakin bat beharko baitugu abiatu ahal izateko. Bitartean, ikerketa prozesu bat hasiko dugu, gauzatzeko modu egokiena zein



den ikusteko.

Kartoiak eta paperak ere lokalean birziklatzea da ideia. Jasangarritasuna lantzen duten ikastaroak ere egingo ditugu: Olio birziklatuaz xaboia egiteko, paper birziklatua egiten ikasteko... Hala ere, ideia guzti hauek garatzen joan beharko gara. Une honetan gure lehentasuna jatetxea eta taberna kudeatu eta zerbitzu on bat bermatzea izango baita. Denbora igaro ahala, ideia berriak garatu eta proiektuan barnera-tuko ditugu.

**Nolako proposamen gastronomikoa eskainiko duzue jatetxean? Nola aurreikusten duzue egur-labea bertan integratzea?**

Hasiera batean eskaintza sinplea izango da, pizzak izango dira jatetxeko ardatzetako bat. Fermentazio luzeko masak izango dituzte, 24-48 ordu bitartekoak. Etxean egindakoak izango dira, eta erabilitako produktu gehienak, bertako ekoizleak. Hala ere, hasieran behintzat, zenbait produktu exportazio bidez ekarriko ditugu: irin zehatzak, pizzetarako tomate bereziak... Baina, esan bezala, km-0ko ahalik eta produktu gehien erabiltzen ahaleginduko gara.

Horrez gain, errazioak eskainiko ditugu; 4 edo 5 errazioko eskaintza finko bat, eta 2 edo 3 kartatik kanpo egongo direnak, garaiko produktuekin egindakoak. Postreak ere izango ditugu. Errazak eta goxoak: Tiramisua, gazta-tarta, goxua... Platerren aurkezpenari ere dagokion garrantzia emango diogu. Pintxo beroak asteburutan eskainiko ditugu ziuraski, eta astean zehar, barrako pintxo arruntak.

**Zein motatako ekintza edo ekimenak garatu nahiko zenituzkete turistak zein bizilagunak erakartzeko?**

Idea batzuk baditugu, baina, esan bezala, une honetan lehentasuna taberna eta jatetxea izango dira. Atal horiek ondo lotuta ditugunean, hilabete batzuen bueltan, ekintza ezberdinak abiatuko ditugu. Atal hau ezinbestekoa da guretzat, hortaz, hainbat eragilerekin harremanetan jarri gara jada. Garatu beharreko hainbat ideia ditugu eskuartean: Serigrafia ikastaroak, artisau-papera egiteko tailerrak, pizzak egiten ikastekoak, japoniar-erako sukaldaritza kurtsoren bat...

Bestalde, hitzaldiak eta bestelakoak eskaini nahi genituzke, baita liburuen aurkezpenak ere. Bertako artistei haien obra erakusteko espazio bat ematea ere ondo legoke. Horrez gain, irteera gidatuak edota kanpoaldeko jarduerak egin nahi genituzke: Argazkilaritza-tailerrak, esaterako. Finean, bertako ingurumen naturala probestea da helburua. Zentzu horretan, beste proiektu posibleetako bat, txirrindulen alokairua litzateke, ingurua beste modu batez ezagutzeko aukera ematen baitu.

**Zuen ustez, nola lagundu dezake proiektu honek eskualdea suspertzen, enplegua sortzen edota tokiko ekonomia indartzen?**

Hasteko, lokalean bertan enplegua sortuko dela ziurtatuta dago: Tabernan, ekintza-kulturalen kudeaketan... Horrez gain, eskualdeko garapenari dagokionez, Barrundiako ekoizleentzat eta inguruarentzat erakusleho moduko bat izan nahi dugu. Gainera, Barrundiako sarreran dagoenez, egitasmoaren funtzionamendua ona bada, proiektuari berari mesede egiteaz gain, udalerraren osotasunari ekarpena egingo diola uste dugu. Bertaraten den pertsona orok, Barrundiak bigarren edo hirugarren bisitaldi bat merezi duela sentitzea lortu nahi dugu.

**Bertako elkarteekin, ekoizleekin edo inguruko kultur ekimenekin elkarlanean aritzeko aukera ikusten al duzue?**

ADR elkartearekin, Hazi elkartearekin, Arabako natura institutuarekin, Xake federazioarekin, Apikutore federazioarekin... hitz egin dugu dagoeneko. Baina haratago joan beharko gara, eskaintza anitza izan dadin.

**Zer garrantzi du zuentzat tokiko identitateak eta nola integratuko duzue eskainiko duzuen esperientzian?**

Ezinbestekotzat dugu jendeak balioan jar dezan Barrundiako kultura, ingurua eta jendea. Azken finean, Barrundiako eta Arabako produktu eta ekoizleen kalitatea ezagutaraztea eta jendeak baloratzea nahi genuke. Arabako lurraldea, hein batean, ahaztua izan dela uste baitugu, inguruan ditugunekin alderatuta. Gasteiz eta Lautadaz gain, ez da aski ezaguna. Proiektu honen bitartez, gure identitatea sustatu eta Araba ezagutzeak merezi duela helarazi nahi dugu.



# La Benta

Texto | Izaro Agirre Poveda · Traducción | Izaro Agirre Poveda

Cada vez está más cerca la puesta en marcha de La Benta y es el propio equipo que va a gestionar el proyecto el que nos explica todos los pormenores y entresijos que ha supuesto para ellos esta apuesta. Nos reunimos con Jon Laskibar Medina para saber algo más sobre el proyecto “La Benta” y esto nos comentó sobre sus planes y expectativas.

**¿Qué os impulsó a presentaros para la gestión de este espacio?**

Hace aproximadamente medio año que dí con este proyecto. Siempre he trabajado en el campo de la hostelería, pero nunca he dado el salto de gestionar un proyecto de estas características por cuenta propia. Sin embargo, me interesó mucho el hecho de que se combinen la perspectiva cultural y hostelera en un solo proyecto. Desde el Ayuntamiento de Barrundia me pareció que el concepto y el desarrollo del proyecto han sido muy bien abordados. Así que me animé.

**¿Cómo definiríais la propuesta de valor para vuestro local? ¿Cuál es vuestra visión a medio y largo plazo?**

Creo que a todo el mundo le podría interesar. Por un lado, porque va a generar actividad en un espacio hasta ahora vacío y porque va a suponer un espacio para el encuentro social de la comunidad de Barrundia. Al fin y al cabo, no queremos ser un simple bar o una pizzería, sino un punto de encuentro. Para ello, queremos organizar actividades, y traer propuestas culturales de interés general para que la gente se acerque y se junte.

Por otro lado, queremos que sea una especie de escaparate para las personas que trabajan en el sector primario, para que la gente conozca lo que ofrecen los productores locales. Además, nos gustaría que la gente de fuera se acercara a Barrundia y conociera el municipio. La ubicación de La Benta podría ser estratégica en este sentido, ya que da la bienvenida a todo aquel que se acerque a Barrundia, sea por la autovía

“

*De cualquier manera, intentaremos utilizar el mayor número posible de productos km-0*

o por la carretera que viene de Gasteiz saliendo por Elorriaga.

**La iniciativa tiene como objetivo promocionar el sector primario y el turismo sostenible. ¿Cómo integraréis esos ejes en vuestro modelo de negocio?**

Integraremos a los productores de diferentes maneras. Por un lado, consumiremos sus productos para poder producir los nuestros: pizzas, raciones...

Algunos nos servirán para constituir nuestra oferta gastronómica, como por ejemplo, tomate, queso, verduras...

Por otro lado, tenemos un punto de venta. Se trata de una pequeña y sencilla tienda, donde los productos solicitados se recogerán en unas taquillas inteligentes refrigeradas. El resto de productos serán de productores locales; Productos con una amplia fecha de caducidad o sin ella. Priorizaremos los productos de proximidad o de comercio justo.

En cuanto a la sostenibilidad, se trata de un concepto muy importante para nosotros. Además de integrar en la dinámica general del negocio, aspiramos a que La Benta sea un referente en ese sentido. Queremos hacer ver que las cosas se pueden hacer con sentido común, llegar a crear conciencia en la gente. Para ello, tenemos previsto destinar el 100% del residuo orgánico a compostaje de la mano de la empresa Ekaia Eko de Narbaiza. Por otro lado, nos hemos puesto en contacto con una empresa para reciclar el aceite.



Tenemos entre manos un proyecto para dar una segunda vida al vidrio, convirtiendo botellas de cristal en vasos con la ayuda de una máquina. Les añadiremos el logotipo de La Benta y además de utilizarlos en el local, estamos valorando la posibilidad de ponerlos a la venta. Sin embargo, es un plan a largo plazo, ya que necesitamos una cierta cantidad de vidrio para poder arrancar con ello. Mientras tanto, iniciaremos un proceso de investigación para ver cuál es la mejor manera de llevarlo a cabo.

Por otro lado, reciclaremos el cartón y el papel en el propio local. Realizaremos asimismo cursos de sostenibilidad: Cursos para aprender a hacer jabón partiendo de aceite reciclado, talleres para aprender a hacer papel reciclado... Aún así, tendremos que ir desarrollando todas estas ideas. Ya que en este momento nuestra prioridad será gestionar el restaurante y el bar, para garantizar un buen servicio. Con el paso del tiempo, incorporaremos estas ideas al proyecto.

**¿Qué propuesta gastronómica ofreceréis en el restaurante? ¿Cómo se prevé la integración del horno de leña en el mismo?**

En principio, la oferta será simple, las pizzas serán el eje principal del restaurante. Serán masas de fermentación larga, de 24 a 48 horas. Productos caseros, la mayoría de productores locales. Sin embargo, al menos al principio, traeremos algunos productos mediante exportación: harinas concretas, tomates especiales para pizzas... De cualquier manera, intentaremos utilizar el mayor número posible de productos por km-0.

Además de las pizzas, ofreceremos raciones; una oferta fija de 4 o 5 raciones, y 2 o 3 que estarán fuera de carta, elaboradas con productos de temporada. También tendremos postres, fáciles y ricos: Tiramisú, tarta de queso, goxua... Le daremos la importancia que merece a la presentación de los platos. Los pintxos calientes se podrán degustar los fines de semana, y a lo largo de la semana, ofreceremos pintxos corrientes.

**¿Qué tipo de acciones o iniciativas os gustaría desarrollar para atraer turistas o vecinos?**

Tenemos algunas ideas, pero, como ya hemos dicho, en este momento la prioridad será el bar y el restaurante. Una vez que tengamos la dinámica bien establecida, en unos meses, comenzaremos a ofertar diferentes actividades. Este apartado del proyecto es imprescindible

para nosotros, por lo que ya nos hemos puesto en contacto con diferentes agentes. Tenemos varias ideas que desarrollar: cursos de serigrafía, talleres de cocina...

Por otro lado, nos gustaría ofrecer charlas y presentaciones de libros. También querríamos facilitar a los artistas locales un espacio donde mostrar su obra. Nos gustaría de igual manera realizar salidas guiadas o actividades al aire libre, como por ejemplo talleres de fotografía. En definitiva, queremos aprovechar el medio natural del lugar. En este sentido, otro de los posibles proyectos sería el alquiler de bicicletas, lo que permitiría conocer el entorno de una manera diferente.

**¿Cómo creéis que este proyecto puede contribuir a la recuperación de la comarca, a la creación de empleo o al fortalecimiento de la economía local?**

Para empezar, la creación de empleo está garantizada en el propio local: en el bar, en la gestión de las actividades culturales... Además, queremos ser un escaparate para las personas productoras de Barrundia y alrededores. Además, si el funcionamiento de La Benta resulta ser positivo, más allá de favorecer el propio proyecto, creemos que contribuirá al municipio en su totalidad. Queremos que todas las personas que se acerquen sientan que Barrundia merece una segunda (o tercera) visita.

**¿Veis la posibilidad de colaborar con asociaciones locales, personas productoras o iniciativas culturales de la zona?**

Ya hemos hablado con la asociación ADR, con la asociación Hazi, con el Instituto de la Naturaleza de Álava, con la Federación de Ajedrez, con la Federación Apikutore... Pero hay que ir más allá, para que la oferta sea variada.

**¿Qué importancia tiene para vosotros la identidad local y cómo la integraréis en la experiencia que ofreceréis?**

Creemos imprescindible que la gente ponga en valor la cultura, el entorno y las personas de Barrundia. En definitiva, nos gustaría dar a conocer la calidad de los productos y productores de aquí y de toda Álava y hacer que la gente lo valore. Creemos que el territorio alavés ha sido en parte olvidado, en comparación con los que nos rodean. Con este proyecto queremos promover nuestra identidad y hacer ver que conocer Álava vale la pena.



# Marieta- Larrintzarko

## Komunitate energetiko berria

Testua | Marieta-Larrintzar Kontzejua · Itzulpena | Izaro Agirre Poveda

Proiektua Marieta-Larrintzaren azken legealdiko batzarra eratu eta gutxira abiatu zen. Duela hiru urte baino gehiago hasi ginen interesatzen zer ziren energia-komunitateak tokiko erakundeentzat.



[EUS] Energia Komunitateen Sarea kooperatibarekin hasi genuen prozesua, ordurako lanean hasia baitzen, nagusiki Nafarroan. Informatzen joan ginen nola artikulatu zitekeen juntak bere onurarako izango zen inbertsio bat egin ahal izateko, tokiko kontsumoak murrizteko helburuarekin: bi etxebizitzena, argiteria publikoarena edo ur depositua energiaz hornitzearena, non kontagailu bat dugun.

Hainbat jardunalditara joan eta beste aukera batzuk aztertu ondoren, azkenean Goienerrekin harremanetan jarri ginen, eta hark proposatu zigun autokontsumo partekatuko sistema bat ezartzea, kooperatibaren figurara jo beharrik gabe (horrek zenbait betebeharrak zekartzan, baina abantailak ere eskaintzen zituen). Azkenik, kontzejua esku utzi genuen

geneukan ideia, aurrera jarraitu ala ez erabakitzeko. Proposamen hori informazio-jardunaldi pare baten ondoren onartu zen, duela urtebete inguru, prozesuari eta inbertsioari hasiera emanez.

Instalazioa osatuta dago, beraz, Iberdrola Distribuciónek behin betiko oniritzia emateko zain gaude. Hasiera batean, eskatu dizkiguten baldintza guztiak bete ditugu. Sorkuntza-kontagailua instalatzea besterik ez da falta. Azkenean, administrazio batzarraz gain, Marietako beste 34 bizilagunek bat egin dute. Instalazioa frontoiaren teilatuan egin da. Dena ondo badoa, udaberrian denon artean ekoizten eta autokontsumitzen arituko gara.

Autokontsumo partekatuaren kontzeptua egingarriena iruditu zaigu,

ez baitu inor inongo erakundetako kide izatera behartzen. Herriko bizilagun guztiak dute sistema horretan sartzeko eskubidea. Egia da, halaber, motz samar geratu zaigula, hasieran baietz esan zutenak baino jende gehiagok parte hartu duelako. Nolanahi ere, formula horri esker, parte-hartzaile bakoitzak nahi duen komertzializatzailearekin duen kontratuari eutsi diezaioke, eta sistemaren onura jasotzen hasi. Dagoeneko zehaztu dituzte parte-hartzaile bakoitzaren kontsumo koefizienteak. Bakoitzak sortutako energiaren eskuragarritasun-kuota bat du, eta kuota hori denon artean konpentsatzen da. Inbertsioa egina dago eta herriak, kontzejuz kontzejua, denboran zehar ekarpen ekonomiko bat egitea adostu du, inbertsioa bultzatu zutenei inbertsioa itzultzeko.



El proyecto se inició poco después de que se constituyera la Junta Administrativa de la última legislatura de Marieta-Larrantzar. Hace ya más de tres años empezamos a interesarnos por lo que eran las comunidades energéticas para entidades locales. Iniciamos el proceso con la cooperativa Red de Comunidades Energéticas, que ya había comenzado a trabajar, principalmente en Nafarroa.



Otros proyectos ya desarroyados en otros municipios de Araba como son Maeztu y Castillo



[CAS] Nos fuimos informando sobre cómo se podría articular para que la Junta Administrativa pudiera realizar una inversión que redundara en beneficio propio, con el objetivo de reducir los consumos locales: el de las dos viviendas, el del alumbrado público o el del suministro de energía al depósito de agua, donde tenemos un contador.

Después de asistir a varias jornadas y de valorar otras opciones, finalmente contactamos con Goiener, quien nos propuso establecer un sistema de autoconsumo compartido, sin tener que recurrir a la figura de la cooperativa (que implicaba ciertas obligaciones, aunque también ofrecía algunas ventajas). Finalmente, sometimos al Concejo la idea que teníamos, para decidir si seguíamos adelante o no. La propuesta se aprobó después de un par de jornadas informativas, hace aproximadamente un año, dando inicio al proceso y a la inversión.

La instalación ya está completa, por

lo que estamos a la espera de que Iberdrola Distribución nos dé el visto bueno definitivo. En principio, hemos cumplido con todos los requisitos que nos han solicitado. Solo faltaría instalar el contador de generación. Finalmente, además de la junta administrativa, se han sumado otros 34 vecinos de Marieta. La instalación se ha realizado en la techumbre del frontón. Si todo va bien, en primavera estaremos produciendo y auto consumiendo entre todos y todas.

El concepto de autoconsumo compartido nos ha parecido el más factible, porque no obliga a nadie a pertenecer a ninguna entidad. Todos los vecinos del pueblo tienen derecho a incorporarse a este sistema. También es cierto que se nos ha quedado un poco corto, porque han participado más personas de las que inicialmente dijeron que sí. En cualquier caso, esta fórmula permite que cada participante mantenga su contrato con la comercializadora que elija y empiece a beneficiarse del sistema. Ya se han definido los

coeficientes de consumo de cada participante. Cada uno tiene una cuota de disponibilidad de la energía generada, que se compensa entre todos. La inversión está ya realizada y el pueblo ha acordado, en Concejo, contribuir a lo largo del tiempo con una aportación económica para devolver la inversión a quienes la impulsaron.

Detrás de todo ello hay un claro compromiso: por un lado, el de contribuir como Junta Administrativa a un consumo responsable y, en la medida de lo posible, de kilómetro cero (en este caso, en la generación de energía), y así aportar a la reducción de la contaminación. Al mismo tiempo, nos parece importante hacerlo de forma conjunta y lo más cerca posible del punto de consumo. Creo firmemente que estamos comprometidos con reducir nuestro consumo, y queremos que, en la medida de lo posible, la energía que consumamos sea limpia, generada lo más cerca posible de nuestro entorno y de manera responsable.



# ARABA BIZIRIK

## Lautada babestu dezagun: Makroproiekturik ez!

Testua | Araba Bizirik · Itzulpena | Izaro Agirre Poveda

[EUS] Orain dela gutxi jakin izan dugu Barrundia, Burgelu eta Gasteizeko lurretan Easy Above Systems enpresak eraiki nahi zuen PSF AgriPV BW Ramos izeneko 7.000 panelez osatutako 4 MW-ko potentziadun zentral fotoboltaikoia bertan behera gelditu dela. Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak erabaki du proiektu honi ezin zitzaioela baimen administratibo bat eman, aintzat hartuta berak lurraldean eta ingurugiroan sortutako kalteak oso larriak lirakekeela.

Berri honetan oinarrituta gutako askok pentsa lezake Araban, eta zehazki-Lautadan, orain daukagun lurraldea eta bizi kalitatea ingurugiro lege zorrotzez baliatuta makroberriztagarri industrialetatik salbu egoteko aukera erreala dagoela. Hala ere, Arabak gaur egun bizi duen errealitatea guztiz bestelakoa da: zorritzarrez gure lurraldearen biziraupena kinka larrian jartzen duten 2.408 MW-ko potentzia batzendentzen 97 makroproiektu (16 eoliko eta 81 fotoboltaiko) tramite bidean daude. Hori guztia gainera,

administrazio ezberdinen laguntzari esker gertatzen ari da: herrialdekoudal ezberdinak, Arabako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzak. Zehazte alderatorkigun tsunami honetan, Lautadaren kasuan, ondorengo proiektu suntu-sitzaileak nabarmentzen dira, Solariak herrialdean zehar Zierbena izeneko tentsio altuko linearen inguruan eraiki nahi duen 1.250 MW-tako 25 poligono fotoboltaikok osaturiko egitasmoaz gain.

“

Zorritzarrez gure lurraldearen biziraupena kinka larrian jartzen duten 2.408 MW-ko potentzia batzendentzen 97 makroproiektu (16 eoliko eta 81 fotoboltaiko) tramite bidean daude.

EOLIKOAK			FOTOBOLTAIKOAK		
IZENA	Potentzia (MW)	Aerosor Kopurua	IZENA	Potentzi (MW)	Panel Kopurua
AZAZETA	40	8	VITORIA SOLARI	50	90.048
GAMARRA I-VII	35	7	VITORIA SOLAR II	50	90.074
CLUSTER VITORIA	30	6	UBALZA II	31	48.960
MIRITXA	20	4	EKILAUTADA	29,3	Ezezaguna
CLUSTER ALI I-II	10	2	UBALZA I	5	11.144
			PSFV VITORIASOLAR	4,6	9.477
			ASPARRENA	4	6.510
			PSFV VITORIA	3,6	7.101



Bitxia da nola, Euskal Herriko komunikabide nagusiek gau eta egun dabiltzalagu konbentzitzen makroinstalazio hauek beharrezkoak direla trantsizio energetiko bat gauzatu ahal izateko. Hain zuzen ere, beraien argudioen arabera, makroproiektu hauek klima aldaketa geldituko luketen giltzarri miragarria izango lirateke, erregai fosilakordezkatuz, elektrifikazioa indartuz eta burujabetza energetikoa bultzatuz.

Alabaina, egunerokoak argi eta garbi erakutsi digu argudio hauen faltsutasuna. Lehenik eta behin, makroproiektu hauek ez datoz ezer ordezkatzera, baizik eta energia-sorkuntza gaitasuna handitzea dute xede bakarra. Zentzu honetan enpresa energetikomultinazionalak (adibidez Green Capital, Iberdrola eta Solaria) legeriaren hutsuneak aprobetxatuz instalazio hauek erabiltzen dituzte beraien etekin ekonomikoa handitzeko eta energiaren prezioarekin espekulatzeko. Bestalde, bertako biztanleriak instalazio hauetan sortutako energia hau ez du kontsumituko, baizik eta milako kilometrotaradauden hirietan eta industriren betebeharrak (armagintza, datu zentruak, hidrogenoaren sorkuntza, etab..) asetzeko erabiliko da. Honetaz

gain, jadanik eraikitako makroberri-eriztagarriek argi erakusten digute beraien benetako eragin kaltegarriak zeintzuk diren: biodibertsitatearen deusezteka, nekazal lurren nahiz mendi komunalen okupazioa, landa-eremuaren industrializazioa, tentsio linea berrien eraikuntza, sakrifizio lurren agerkundea eta beste abar luze bat. Eta honetaz gain ez dezagun ahaztu ere Lautada arriskuan jartzen sortzen dituzten bi makroinstalazio gainean ditugula: Olaztiko Erraustegia eta AHT-a.

Honen aurrean Araba Biziriketik argi daukagu makroproiektu hauek ez ditugulaez Lautadan eta ez inon nahi. Horretarako gainera, uste dugu herritarren antolakuntza bultzatzea beharrezkoa dela proiektu txikitzaile hauek geldiarazteko, eta bide horretan hitzaldiak, mendi martxak, manifestazioak eta beste hainbat ekintza antolatzen ditugu. Baina beti ere argi utziz, alternatibak badaude, hala nola, energiaren deshazkundea, autokontsumoa eta efizientzia energetikoa, baina inongo mirarik itxaron gabe.

**Horrela ez! Lautada ez dago salgai!**

“

